



AFGANISTANEN AURKAKO ERASOAK

EEBBek eta Pakistanek «gobernu zabala» ezarri nahi dute Afganistanen

BONBARDAKETAK.

Kabulgo Gurutze Gorriaren biltegi bat suntsitu dute EEBBetako bonbek

SARIA.

Pakistanek EEBBekin duen zorra arinduko duela agindu du Colin Powellek

KAXMIR.

Pakistan eta Indiaren arteko gatazkak kezka eragin die Estatu Batuei /20-24



LAGUNTZA. Colin Powell Estatu idazkari estatubatuarrak Pervez Musharraf Pakistango gobernuaren sostengua izaten jarraituko duela ziurtatu du Islamabadera eginiko bidaian.

NAFARROA OINEZ

«Elkartasunaren Oinez-a» egingo da igandean Lodosan eta Sartagudan

Erribera Garaiko ikasle guztiak bilduko dituen ikastolarentzat izango da dirua /11

BEHAR SOZIALAK



«Justizia soziala» eskatu dute langileek Baionako manifestazioan

GCT, FO, CFTC, FSU eta LAB sindikatuek deituta egin zen mobilizazioa, eta soldatak igotzea eta erretretako adina mantentzea galdegin zuten. /18

ANTZERKIA

Azpeitiko Topaketek ikus-entzunezkoen bidea hartu dute

Hemeretzi urte igaro eta gero, «antzerkiarekin bakarrik» topaketak motteltzen ari zirelakoan, film laburrak, disko aurkezpenak, opera eta beste eskainiko dituzte Azpeitian. /42

HIZKUNTZA POLITIKA NAFARROAN

Atlas Linguistikoa Euskal Herrikoa delako eten diote laguntza Euskaltzaindiari

Pedro Pegenautek esan du Atlasa Nafarroakoa bakarrik egiteko eskatu zutela /12



EKIALDE HURBILA

Sharonek estatu palestinarra onartuko duela esan du

Ariel Sharon Israelgo lehen ministroak estatu palestinarra onartuko duela esan du, hainbat baldintza jarrita mahai gainean. /25